

# Toponimia ikerketak

PATXI GALÉ\*

TOPONIMIA IKERKETAK: ZERGATIK, ZERTARAKO

Azken aldi honetan toponimia ikerketak nolabaiteko boladan daude gure artean. Asko dira herriko mapak, kaletegiak, monografiak eta era honetako produktuak argitaratzen ari diren udalak. Horiek gauzatu ahal izateko, ordea, aurretik herriko ondare toponimikoaren ikerketa bat egin behar da, azalekoago edo sakonagoa izan daitekeena eta, horren arabera, Udaleko aurrekontuari gastu xumeago edo haziago batzuk ekarriko dizkiona. Horregatik, ezinbestez egin beharreko lehenbiziko galdera da, ea udal batek zergatik egin behar duen honelako ahalegin bat, zergatik gastatu behar ote duen diru bat era honetako produktu batean. Galdera honen erantzunik errazena, ia ahobatez onartzeko modukoa, kultur ondarearen babes aipatzea litzateke. Hau da, gure herrietako toponimoak, gure kultur ondarearen parte dira eta babestu behar ditugu. Eta erantzun hori zuzena den arren, ez dugu horregatik ahaztu behar, betiko lekuei izen berriak jartzea, modernitatearen seinale izan dela duela gutxira arte. Jarrera horiek, ordea, gairidurik daudela dirudi eta gaur egun tradizioek galdu egin dute lehen zeukaten atzerakuntza ñabar-dura hura. Oro har, zaindu beharreko balio bat direla onartzen da, alegia.

Nori dagokio zuzenenik ondare horren babesaren ardura? Badirudi udal-erri baten eskumeneko lekuen izenen zaintza behinik behin, Udalari berari dagokiola hurbilenik. Honekin batera, arrazoi beragatik esan daiteke ondare horren galeraren erantzukizuna ere, gertatzekotan, berarena dela neurri handi batean. Udalek ezarritako seinaleztapenek, adibidez, berehala egiten dute bidea jendearen artean. Jarritako plaka baten bidez ordezkaturiko toponimo bat edo gaizki idatziriko izen bat, hasierako eztabaidak edo protestak gora behera, aurki *betikotzat* hartuko dute herritarrek. Honelakoetan ikus daiteke argienik erakundeek leku izenen kudeaketan daukaten erantzukizuna.

\* Onomastika batzordea, Euskaltzaindia.

Eskuartearen dugun ondare horren izaera bereziagatik, babes hori gauzatzeko oso neurri edo jardun diferenteak jar daitezke abian. Hasteko *toponimia zaintzea* zer ote den argitu behar genuke eta, laburbilduz, udalerriko lekuen izen egokiak erabiltzea eta erabilaraztea dela esan genezake. Toponimia zuzena erabilarazteko udalek eskuerean dituzten zenbait bitarteko eraginkor balia ditzakete: toponimia ikertzeaz gainera, herritarrei helarazi behar zaie ikerketaren emaitza, izen horiek herritarren eguneroko bizitza arruntean eta udalaren jarduera ohikoan erabilia izan dadin. Ikerketa baten helburua ez da, honenbestez, herriko leku izenen bilduma *izoztu* eta zurrun bat plazaratzea –gero apalategi batean egongo den liburu mardula, adibidez–, izen horiek gaurko bizimoduetara egokitu eta eguneratzea baizik, behar delarik, izen zaharrei erabilgarri bihurtuko dituen balio berriak erantsiz eta atxikiz. Azken kasu honen adibide egokiak izan daitezke industrialdeak. Eraiki berri den industrialde bati *Polígono 27* izena eman ordez, desagertutako baserri edo dorretxe baten izena ematen bazaio, izen zahar hori ahanzturatik babesten ari tuko gara eta,aldi berean, izenaren bidez eraikin zahar haren memoria ere gordeko dugu. Ikusten denez, herri bakoitzaren historiarekin lotutako ondare honen babesaz gainera, ikerketaren emaitzak Udalarentzat tresna erabilgarri gertatu ohi dira Hiri Ordenazio Plangintza Orokorretan, kale izenetan, herriko bide eta parajeen seinaleztapenean eta era honetako erabilera eguneratuetan.

Aipaturiko adibideetan ikusi dugunez, bide, kale, auzune, baserri eta halakoen seinaleztapena izaten da hiritarrarengana toponimia helarazteko erarik artez eta arruntena. Baina kontuz! Seinaleztapenak eraginkortasun berbera dauka egokia ez den izen bat gizarteratzeko –gizaratean sustraiak luza ditzan–, eta ikerketa serio baten emaitza den proposamen arauzko bat normal bihurtzeko. Dударik ez dago, azken bide hau dela kultur ondarearen atal toponimikoa *babesteko* era zuzen eta egokia.

## TOPONIMIA IKERKETAK: NOLA

Udalerrri bateko toponimiaren ikerketa burutzeko lehen urratsa, beka edo lehiaketa baterako deialdia plazaratzea izan ohi da. Honek zenbait aurrelan eskatzen ditu kasurik gehienetan. Lehenik, lana egiteko plan orokorra proposatu behar da, normalean eskuratu nahi den produktuaren nondik-norakoak aurreikusirik diseina daitekeena. Ondoren, Udalak beharrezko diru kopurua lortu eta helburu hori eman beharko dio, zenbaitetan beste erakunde batzuen laguntza lortuz eta baliatuz. Herri txikietan bereziki, interesgarria izan daiteke balizko ikertzaileak edo bekadunak aurretiaz lokalizatzea, baldintzen arabera, lehiaketara inor ez aurkeztea ere gerta baitaiteke. Azkenik, deialdia publiko egiteko, beka edo lehiaketa esleitzeko epaimahaiaren osaera erabaki behar da, ikerketaren zuzendaritza kultur erakunde batekin itundu, epeak zehaztu...

Ikerketa hauek apur bat deskribatu aurretik, argitu nahi genuke geure artean *ospe ona* duten metodologiak, duela ia-ia mende batekoak direla eta, ondorioz, zaharkiturik daudela susma daitekeela ausartegiak izateko arrisku handirik gabe. Gauza zahar guztiak, ordea, ez dira txarrak eta ez gara gu orain metodologia etnografiko tradizionalen kritika sinpleetan ari tuko. Baina jakin beharra dago, 1920. urteen hamarkadan Arantzadik eta Barandiaranek abian

jarritako uhinean ari garela oraindik lanean gizarte zientzietako ataltxo honetan. Etnografo hauek gainera, XIX. mendetik zetorren bolada folklorista erromantikoaren ondorio izan ziren, gure herrian sasoi bertsuan Azkuek, Campionek eta beste hainbestek ere garatuko zutena. Garai haietatik hona, gizarte franko aldatu dela eta aldatzen ari dela begibistako kontua da. Ondorioz, sasoi da metodologia horretan zer den baliagarri eta zer dagoen zaharkiturik aztertu, arretaz neurtu eta bereizteko.

Nolanahi ere, ohiko ikerketa batek honako urrats nagusi hauek izaten ditu, neurri batean edo bestean ikerketa prozesuaren oinarriak izango direnak: 1 Datu dokumentalen jasoera, 2 ahozko informazioaren bilketa, 3 toponimoen arautze grafikoa eta 4 izenen normalizazioa.

1. Fondo dokumental, kartografiko eta bibliografikoen inbentarioa eta ondoko erauzketa.

Denboraren arabera ordenaturik, dokumentazioan, mapetan eta abarretan idatzirik aurkitzen ditugun leku izenek, beren historia idatzia-  
ren berri ematen digute. Ez dira inpresioak edo memoria ariketa espekulatiboak, datuak baizik eta, horrenbestez, bilketa honetatik aparte utzi behar dira iritzi, uste, interpretazio, herri etimologia eta era honetako gauzak. Horrek ez du esan nahi halakorik ez dela jaso behar, daukaten balioa eman eta dagokien sailean gorde behar direla baizik. Datu hotzak izanik ere, kontuan izan behar dugu iturri dokumental guztiek ez dutela fidagarritasun maila bera eta jasotako lekukotzak garai bakoitzeko baldintzetara egokituta aurkituko ditugula ezinbestez (eskribauen irizpideak, administrazio hizkuntzaren ortografia, unean uneko moda eta prestigioa...).

2. Ahozko informatzaileen bilaketa, identifikazioa eta informazioaren bilketa.

Laburbildurik, helburua gaurko erabilera mintzatuaren berri jasotzea dela esan daiteke. Herriko leku izen horien erabiltzaileei galdetzean, izaera desberdineko arrazoi askorengatik, gertatuko zaigu aurreko fasean lortu ditugun era dokumentalak eta ahoz jasotzen ditugunak, ez direla izango nahi genituzkeen bezain *antzekoak*. Hala ere, ahozko informazio hau izango da antzina erabilitako izen dokumentatuak eta gaurko eremu geografiko izendatuak erlazioan jartzeko biderik segurua eta, gehienetan, bakarra. Informazio horien eramale fin eta egokiak bilatu behar ditugu, beraz. Informatzaileak bilatzeko irizpideak kualitatiboak izaten dira, errepresentatiboak baino gehiago, hau da, informatzaile egokia ez da herriko batez besteko *tipo* kulturala, kultura zaharrea edo jatorrean jantzia dagoena baizik. Arrazoi bera-  
gatik, esan behar dugu jasotako datuek ez dutela balio errepresentati-  
borik zentzu soziologikoan, hau da, ez dira derrigor izen *erabili*enak.  
Nola edo hala, aurreiritzen dugu *jatorrena* bilatu behar dugula, ez erabili-  
ena. Iritzi hori zalantzan jartzen ez dugunean, ia inkontzienteki ari  
gara hautu metodologiko zehatza egiten –ideologiaz zaturik dago-  
ena, segur aski–. Hainbat galderari erantzuna ematea komeniko da,  
onestasunez lan egingo badugu: Nortzuk bizi dira herri horretan?,  
nortzuek erabiltzen dituzte izen horiek?, nola egokitzen dituzte esaldi  
aruntetan?, zein hizkuntzatan txertatzen eta ahoskatzen dituzte?,

- nortzuek daukate *gure lekuak* izendatzeko edo bataiatzeko eskubi-dea?...
3. Toponimoen arautze fasea eta normalizaziorako proposamenak. Lanaren sustatzaileek ikerketa lanaren prozedura zuzena eta emaitzaren kalitatea zainduko duen kultur erakunde bat aukeratu ohi dute. Kontrol akademiko honexek emango dio lanari nolabaiteko bermea. Erakunde akademikoek, ustez –behintzat hala egin ohi du Euskaltzaindiak–, irizpide batzuk dituzte toponimoen idazkera arauzkoa zein den erabakitzeko. Irizpide horiek, bereziak izanik ere, euskararen normalizazio korapilatsuan emandako urratsekin bat etorri ohi dira, euskal toponimiaren normalizazioa euskararen beraren normalizazioaren atal bat baita eta halaxe ulertzen ikasi behar baitugu. Gaztelania edo frantsesa bezalako hizkuntza normalizatu batean, oro har, hiztunek sistema ortografiko egokia ezagutu eta erabiltzen dute apenas desbideratzerik gabe. Hizkuntza horien akademiek emandako irizpideak ez dira zalantzan jartzen eta estatu boteretsu horien administrazioek ere, irizpide horiek onartu ez ezik, haien normalizazioa bultzatzen dute ere oso modu eraginkorrean. Euskararen egoera, tamalez, guztiz da bestelakoa. Horregatik oso ohikoa da erakunde, ikertzaile, erabiltzaile edo zale bakoitzak bere gustuko idazkerak proposatzea, hobestea edo jo-ta-su defenditzea. Sakabanatze hori gure hizkuntzaren egoera ez-normalaren ondorio da alde batetik, baina egoera horretan jarraitzeko lagungarri aktibo ere bihurtzen da, azken hau beti bilatutako helburu kontziente eta agerikoa ez bada ere.
  4. Arauzko toponimia horren gizarteratzea eta normalizazioa. Laugarren fase hau ikertzaileen eskuetatik kanpo gelditu ohi da. Jasotako informazio guztia ordenatu, mapetan kokatu, oharrak erredaktatu, arauzko proposamenak egin –guk *proposamen* deitu ohi ditugu, azken erabakia erabiltzaileen esku baitago– eta material hori guztia entregatutakoan, lana *amaitutzat* eman ohi du ikertzaileak. Ondoko fasea da, ordea, garrantzitsuena, prozesu osoaren pizgarri eta azken helburua delako. Ikerketaren emaitzak eta egindako proposamen horiek gizarteratu behar dira eta gizarteak bere egin arte, ez da gure helburua erdietsiko. Badago afera honen inguruan, intereseko ideia bat ikertzaile eta aditu guztiek etengabe buruan atxiki behar luketena. Proposatzen diren toponimo arautu hauek herritarrengandik jasotako informazioaren emaitza elaboratua dira eta, horregatik, *deboluzio* bat bezala ulertzen hasi behar dira. Informatzaile/erabiltzaile hauek izango dute azken hitza, zeren arauzko proposamenak *normalizatu* egin direla esateko, erabiltzaileen eguneroko praxian sustraiak luzatu behar baitituzte. Eta horrek denbora eskatzen du.

#### IKERKETARAKO JARRAIBIDE BATZUK

Lehen aipatu dugu erabili ohi den metodologia apur bat zaharkiturik dagoela. Eta egia bada ere, beste alde batetik onartu behar dugu puntako baliabide tekniko asko ari direla gaur egun erabiltzen egin behar desberdinak errazteko: datu base informatikoak, argazki digitalak, GPSak, hots grabagailu sofistikutuak... Hala ere, lan prozeduraren egitura orokorrean, Euskal Et-

nografia Eskolaren topiko asko antzematen ditugu gaur eguneko ikertzaileengan, lan zientifikoaren eta jakintzaren kontzeptuen gaineko ulerkerak tradizionala ezkututzen dutenak. Hau oso argi ikusten dugu, adibidez, lanaren emaitzak –guk *normalizazio proposamen* deitu ditugunak– ezartzeko jarraitzen den bidean:

Lana abian jartzeko prozedura aztertzean ikusten dugu lehenik, legezko eskumena duen erakunde batek sustatzen duela ikerketa, ondoren horretarako prestakuntza demostratu duen ikertzaile batek burutzen duela lana eta, azkenik, kompetentzia akademikoa onartzen zaion erakunde batek ematen diola arauzko eren gaineko onirizpena lanari. Toponimoak *benetan* normalizatzeko prest daudela adierazteko, akademiaren oniritzia edota dagokion erakundearen ofizialtasun ziurtagiria behar dute. Gure ustez, gauzak beste modu batez ulertzen hasi beharra dago. Amaitu dira arauzko izenen zerrendak eta izen ofizialen dekretuen garaiak. Prozedura hauen atzean, kulturaren eta jakintzaren eredu *bertikala* dago eta, gure helburua herriko toponimia gizarteratzea den aldetik, egokiagoa litzateke eredu simetrikoago bat, herritarrak aintzat hartzen dituen eta, finean, demokratikoagoa litzatekeena. Segur gaudede, gako aldaketa honek ondorioak ekarriko lituzkeela ikerbidearen fase gehienetan.

- **Ikerketen helburua:** Askotan esan ohi da toponimia ikerketak ez direla sekula santan amaitzen. Eta egia da. Egitasmo batean ordu asko sartu dituen ikertzaileak, bere lanaren emaitzak al bait modurik biribilenean aurkeztu nahi izaten ditu. Bere lana *amaitutzat* emateko gogoia izaten du. Gainera pentsatuko du ikertu duen eremua, jadanik ez dela berriro ikertu behar, gaia ahiturik dagoela, alegia. Baina gauzak ez dira hain sinpleak. Ikerketa bat *amaitzen* denean, ondoren etorriko diren beste ikerketa batzuen oinarri huts izatera pasatzen da. Toponimiaren munduan –eta ikerbide zientifiko orokorrean ere halaxe da–, amaituriko ikerketa bat beste ikerketa batzuetarako informazio iturri bat besterik ez da izango aurrerantzean. Badaude ikertzaileak, ordea, beren herriko toponimia aztertu nahi duten belaunaldi berriei oztopoak jartzen dizkietenak. Zertarako alferrik lan egin? Nik egin dut ikerketa hori! Hobe duzue dirua beste edozertan gastatzea! Baina ikergaiak ez dira ikertzaileen jabetza, noski, eta kontuan izan behar dugu aurrerapen zientifikoa beti oinarritzen dela aurrekoek egindako aurkikuntza eta urratsetan. Hortaz, sobran daude deskribatu ditugun jarrera horiek. Kontrara, gure aurrekoek egindako lana ezagutu beharra dago, alde batetik, eta, bestetik, ikerketa berriak bultzatu behar ditugu aldi berean. Ikertzaile batek produktu bat osatzen duenean, produktu horren egiletasuna onartu eta aitortu egin behar zaio. Lana burutzeko finantziarioa jarri duen erakundea haren jabe izan daiteke, baina horrek ez du haren egile bihurtzen. Egile paper hori ezkutatzea edo, besterik gabe, egilearen izena ordezkatzeta, lan intelektual baten lapurreta egitea da eta, legala balitz ere, inola ere ez da ez justua ez etikoa.

Arrazoi beragatik, ikerketa batean erabilitako datu iturri guztien egilea aipatzea ezinbesteko baldintza da, gure lanaren parte handi bat, beste batzuek eginiko ikerketen informazioa biltzea dela onaturik. Ikertzaileen artean, ordea, bada beste jarrera bitxi eta antzu bat. Ikerketa bat egin du aditu batek bere eskualdeko toponimiaz eta, lapurtuko dioten beldurrez, ez dio

inori ikusten uzten, ez datuak inoren esku jartzen. Era honetan kudeatzen diren ikerketak, adibidez doktore maila eskuratzeko balagarriak izan daitezke, baina komunitate zientifikoaren esku jartzen ez direnean, aurrerabidearen kate hura nahita eteten ari dira eta, beraz, alferrikakoak dira zeharo. Hobe egin barik utzi izan balira.

- **Informatzaileak egilekide:** Gure herrietako toponimoak aztertzean, informazio garrantzitsuena herriko biztanleengandik jaso ohi da. Informatzaile lokalak izaten dira toponimia lan baten arima eta, horregatik, onartu behar litzaieke emandako datu horien *egiletasuna*. Azkenaldi honetan, berriz, kontrako bidea iradokitzen zaigu. Bizi garen gizarte *hiperzibilizatu* honetan, ikerketen informatzaileei eskerrak eman ez baina haien nortasuna ezkutatu egiten dugu, datu pertsonalen sekretuaren gaineko legeria argudiatu. Guk, ordea, ikertzailearekin batera egilekide bezala agertu beharko liratekeela uste dugu. Zenbait Udaletan eginiko toponimia ikerketaren aurkezpenan, ohorezko lekua eman zaie informatzaile hauei, gorago esan bezala, iragana eta gure arteko lotura kultural hori ahalbidetu dutelako. Doan emandako informazio hori geuretu eta haren nortasuna ezkutatzea baino, zuzenago eta eraikigarriago deritzegu era honetako ekinbideei.
- **Herritarrak parte hartzaile:** Leku izenen arauzko grafiak *indarrean jartze-ko*, orain arteko bidea zerrendak argitaratze hutsa izan da. Ez da harriztekoa honen ondorioz, herri askotan jendeak onartu ez izana ikertzaileek, adituek, *espertoek*, akademiak eta abarrek emandako *erabakiak*. Herritarrek beren herriko lekuen izen arautuak kanpotik etorritako zerbait bezala somatzen dituzte honela. Herri guztietan dago izen bat edo besteren gaineko liskarra, eztabaida, desadostasuna... maiz ezinikusi sakonak ere ekarri dituen. Honelako gatazketan ikusten da egiak toponimiak pizten dituen pasioen neurria. Gauzak honela izanik, lan prozeduretan optika eta iritzi guztiak jasotzeko aukera eskaini behar da. Eta ikerketak burutzen ari diren bitartean –ez ondoren– egin behar da hau. Bere herriko toponimian interesa duen edozeinek eduki behar du bere iritzia eta bere arazoibideak adierazteko foroa, baita besteena entzuteko ere. Parte hartze foro hori ikerketa guztietan ahalbidetu behar genuke. Era honetan debatea gizarteratu egingo da, arazoibideak plazaratu egingo dira eta, finean, iritzi guztiak entzunda egingo dira azkeneko proposamenak. Duda gabe, hemendik irten-dako zerrendek kontsentsu handiagoa izango dute eta errazago erdietsiko da haien normalizazioa.

Bada, gainera, metodologia parte hartzaile honek ekar dezakeen saihetseko onura bat: hiritarrak eta herriko talde kulturalak mugiaraziko ditugu herri gintza egitasmo baten inguruan. Honela, ikerketan zehar herria eraikitzen ariko gara, kultura demokratizatze urratsa izango da gure lana eta kulturaren eredu horizontalago batean kokatuko ditugu eragileak: sustatzaileak (Udala, adibidez), herritarrak (partikularrak nahiz taldeak) eta akademikoak (ikertzaileak, akademia, unibertsitatea, bestelako kultur erakundeak...).

- **Ikertzaileak jakintsu:** Oso ohikoa da toponimia ikerketetan aritzera doan jendearen artean, ikasle lizentziatu berriak jardutea. Toponimiaren ikerketa bati ekitean, ikasgeletan jasotako hainbat jakintza eta trebezia eramaten da baina, zoritxarrez, onomastikaren eta toponimiaren inguruko forma-

ziorik ez da apenas ematen gure unibertsitateetako fakultateetan. Ohikoan, honelako ikertzaileak zerotik, *ex nihilo*, hasten dira beren ikergai berria aztertzen. Lana egin ahala, datuek bere emandako pistei segiturik eta beren jatorrizko disziplina akademikoak eragindako bultzaden arabera, ikerketa sistema osoa eraikiz doaz: metodologia propioa diseinatu, tresna egokiak bilatu edo gauzatu, datuetatik eta prestakuntza akademikotik ondorioak atera eta, azkenik, egindako aurkikuntzak nola edo hala formulatu eta aurkeztu egiten dituzte. Ikergai horren gainean munduko jakintsuenak sentitzen dira eta toponimia datutegi mardul batek oso urrunera eraman ditzake: euskal lexikogenesiaren estrato zaharrak, jatorrizko euskal desinentzien aztarna biziak, beste inon gorde ez den hiztegi esentziala... Era honetako *aurkikuntza miresgarrietara* heldu da gure arteko zenbait ikertzaile. Unibertsitatean ikasitako edo entzundako teoriak eta hipotesiak ziotena dute buruan eta, kontzientzia maila desberdinekin, haien aldeko nahiz kontrako frogak bilatuko dituzte toponimiaren alorrean. Beren gloria unea bilatu ez ezik, medioetan erreparatu barik, gogoko dituzten autore eta irakasleen teoriak defendatzaile sutsu bilakatuko dira ere. Baldin aurkituriko datuek hipotesia gaitzesten badute, informazio hori gezurrezkoa dela adierazteko azalpen korapilatsua ehunduko dute lasai asko, zeren... nor daki horren gainean haiek baino gehiago?

Bakoitzaren disziplina akademikoaren murrizketaz gainera, nazionala zein lokala izan daitekeen talde nortasunari ere men egin ohi zaio nahita edo nahi gabe. Helburua, finean, euskal kulturaren esentzien aztarnak –galdera zaharren behin betiko erantzunak– norberaren herriko gaurko berbetan aurkitu dutela frogatzea da. Batzuetan konturatu ere gabe, gure egunotako Larramendi eta Astarloa bihurtzen dira, gaurko tubalismoak, vascoiberismoak edo cantabrisismoak, aurpegi *herrikoiago* batez mozorrotzen badira ere.

Denborak emango die, berriz, errealitatearen neurria. Bide luzea egin da gure artean honelako ikerketetan eta toponimoen eboluzioan gertatzen diren fenomeno gehienak deskribaturik eta tipifikaturik daude dagoeneko. Isolaturik aritzen den ikertzailearen bakartasun hau saihestu beharreko egoera da, geure kulturaren aferetan dispertsioa eta azientifismoa galeraziko badugu. Alde batetik, ikertzailearentzat berarentzat oso garrantzitsua da lehendik egin denaz albait informaziorik handiena edukitzea. Bestetik, bakoitza bere aldetik ibiltzeak irizpide batasunik eza dakarkio gure toponimiari. Azkenik, euskal kulturaren –eta orobat haren parte den hizkuntzaren– azterketarako, ikerbide desmitologizatuak garatu eta erabili behar ditugu. Gorago esan dugun bezala, gure hizkuntzaren egoera partikularrak ezin dio sakabanaketa egoera horri eutsi, hots, hizkuntzaren erabilera are gehiago anormalizatzen arituko ginateke eta, hau gutxi balitz, euskal ikasketek hor zehar zuten ustel usaina hedatzen lagunduko genuke atzerrian ez ezik, Euskal Herri barruan ere.

- **Disziplinaren murrizketak eta kutsapen ideologikoak:** Gorago esan dugu ikertzaile bakoitzak bere disziplinari dagokion prestakuntza dakarrela aldean. Toponimia kontuetan dabiltzanak, ohikoan, filologia, historia, geografia, etnografia eta honelako disziplinetatik heltzen dira. Maiz disziplina hauen artean, lehenetsuta bata ala besteak ote duen nahi izaten da argi-

tu –bakoitzak berea nahi, jakina–. Guk, ordea, toponimia berez zeregin interdisziplinarra edo, orain esaten den bezala, *zeharkakoa* dela pentsatzen dugu. Izaera honek, berriz ere, metodologia parte hartzaileagoak eskatzen ditu eta, ikerketan laguntzen duten *adituak* ere, disziplina desberdinekoak izatea komeni dela dirudi, honela optika diferenteen berri izango dugulako. Funtsean, disziplinen eraginez toponimiazaleen artean dauden joerak, bi muturren arteko *continuum* batean koka ditzakegu.

Mutur batean, dokumentalista batek, izenak dokumentuetan ageri ohi diren grafiaz idaztea defendi dezake. Ikuspuntu honetatik *Aramayona*, *Bilbao*, *Villafranca de Oria* eta era honetako formak izango ditu gustuko. *Aramaio*, *Bilbo*, *Ordizia* eta halakoak nazionalistek –nazionalistak beti izaten dira *besteak*– inposaturiko gauzatzat izango ditu segur aski. Idatzitako datuari lehentasuna emate horren atzean, zenbaitetan, elite kulta eta herri xehearen arteko aukeran, lehenbizikoaren aldeko jarrera egon ohi da, kulturaren ikusmolde bertikala eta elitismoaren aldeko hautua, alegia. Beste muturrean, hizkuntzalari dialektologiazaleak izenak ahoskatzen diren modu zehatzean nahi izango ditu idatzi. Honela, *Atxabalta*, *Izal*, *Ondarru* edo *Seani* nahiagoko ditu, izenen tradizio idatziari zein oraingo arauetara inolako arretarik eman gabe (*Aretxabaleta*, *Idiazabal*, *Ondarroa*, *Zeanuri*).

Gai honetan norberaren disziplina ez ezik, afera ideologikoen zama ere nabari daiteke. Batzuek indarrezko estandarizazio prozedura bezala ulertuko dute toponimiaren normalizazioa –dekretu bidezkoa, beraz– eta besteek, berriz, populismoaren bidean erosoago sentituko dira, hizkuntzaren sistematizazioa bultzatzea *aberastasun* iturri bezala ulertuta: *idatz dezagun ahoskatzen dugun bezala*, alegia. Euskararen normalizazioari begira, zeharo arrazoi desberdinengatik bada ere, etsai diren muturreko jarrera bi hauek, ondorio berberera eramango gintuzkete: euskara baseritarren hizkuntza bat da eta ez da egoera horretan aldaketarik behar. Gure jarrera, noski, ez dator bat muturreko hauekin eta oreka, *continuum* horretako erdibidean bilatu behar dela esango genuke.

- **Elebitasunaren kudeaketa:** Afera ideologikoekin nahasturik dagoen kontu honi nahiko artez eutsi dio –hitz hutsez bada ere– gure herriko zenbait legek. Adibiderik argiena, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen erabilerara arauzkotzeko oinarrizko legeak (Eusko Legebiltzarreko 10/1982, azaroaren 24koa) ezartzen duen toponimiaren normalizaziorako irizpide nagusia da. Honek dioenez, euskal toponimoak euskarazko grafiaz idatzi behar dira eta erdal toponimoak gaztelaniazko ortografiaz. Hain simple dirudien irizpideak, hala ere, arazo handiak dakartza gero gure lekuen izen ofizialak ezartzeko orduan.

Badaude hizkuntza bakoitzean eboluzio diferentea izan duten izenak eta, kasu horietan, biak ontzat ematea dirudi zuhurrena, bakoitza bere hizkuntzan erabilia izan dadin (*Nabaskoze* eta *Navascués*). Azken hauetan izan ezik, irizpide orokor hark, erabilitako hizkuntza edozein izanik ere, toponimoaren hizkuntzari arrotza zaion grafia baztertzea eskatzen du (*Uharte* euskaraz eta gaztelaniaz eta inoiz ez *Huarte*). Honelakoen aurrean ikus daiteke argienik gure hizkuntza biak ez direla –legeek diotena diotela ere– egiaz koofizialak: Euskal toponimoak gaztelaniazko grafiaz idatzirik ikus-teak ez digu min handirik egiten, *normala* iruditzen zaigu. Hala, *Aranara-*



*che*, *Escoriaza*, *Guernica*, *Zuya* bezalako grafiek ez gaituzte harritzen, baina astakeria iruditzen zaigu funtsean gauza bera liratekeen *Baldegobia*, *Biana* edo *Billabuena* idaztea.

Aipaturiko irizpidea aplikatze hutsa ez da beti erraza izaten baina, gauza gehiago konplikatzeke, toponimoen era ofizialak ez dituzte ikertzaileek edo kompetentzia akademikoa dutenek erabakitzen, leku bakoitzaren gaineko eskumen legala duen administrazio erakundeak baizik. Hortaz, irizpideak txandako agintarien intuizio edo gogoaren eskuetan gelditzen dira eta, ondorioz, gure toponimiaren irudiaren panorama ez da lasai bizitzeko modukoa. Euskaldunaren patua, maiz, honako hau da: *zer erabiliko dut, euskaraz zuzena dena ala herri horretan ofiziala dena?* Nola uler daiteke zuzenak ez diren izendapenak ofizial izatera heltzea? Errespetatu behar ote ditugu izen ofizial horiek?

Zenbait legek hizkuntza biak hiritar guztien ondare direla aitortzen badi ere, hiritar guztien gogoan ez dago halakorik. Euskara dakienak beste hizkuntza ofiziala ere jakin ohi du, baina hiritar erdaldunak ez du bigarren hizkuntza ofiziala ezagutzen. Ondorioz, gizartea ez dago –maiz pintatzen zaigun bezala– erdaldunetz eta euskaldunetz osatua, erdaldunetz eta elebidunetz baizik. Toponimiari gagozkiola, hiritar elebidun batek *Navascués* eta *Nabaskoze* aldaerak *bere* bezala ulertu ahal dituen bitartean, erdaldun batek nekez beretuko du *Nabaskoze* bezalako erarik, *bere* hizkuntza bakarri arrotz zaiolako euskal era hori.

Baina beti ez da honela gertatzen. Adibidez, euskara hil aginean dagoen *Leioa* herrian, era hau bakarrik dute ofizial, gaztelaniazko eboluziodun aldaera –*Lejona*– bazterturik. Hango hiritar erdaldunek ere gero eta normalago darabilte *Leioa* izena beren ohiko hizketa eta idazkietan, baina ez da zilegi erdaraz *Lejona* erabiltzea? Eta *Hondarribiaren* ordez *Fuenterrabia* erabiltzea? Zergatik? Bertan euskaldun –elebidun– gehiago bizi direlako eta halaxe ofizialdu dutelako? Kontrako muturrean euskal izenik onartzen ez dutenen kasua dago. Adibidez, euskara oraindik bizirik dirauen Bizkaiako *Sopela* herrian, *Sopelana* izena da ofizial bakarra, nonbait, udal agintarietara –botoek ez dute lege fonologikoen gaineko jakintzarik ematen– *osoa-goa* iruditu zaielako. Ezjakintasunez nahiz maltzurkeriaz erabakita ere, kontua da *Sopelana* era izenaren gaztelaniazko eboluzioaren emaitza dela eta *Sopela* euskaldunek moldaturiko aldaera, hau da, herriaren euskal izena. Udalaren eta erakundeen praxian, kontrara, euskaraz ari direnean ere *Sopelana* erabiltzen da bakarrik. Ezin dugu euskaldunok *Sopela* erabili euskaraz ari garenean? Era berean, kontzienteki hala nahita, Nafarroako Ameskoabarrengo Udalak *Améscoa Baja* izen ofizialari eustea erabaki du, hots, *Ameskoabarren* euskal izena baztertzea, agian *bere* bezala ez duelako sentitzen. Legeek zernahi esanik ere, badirudi zilegi dela gure hizkuntzeta-ko bat baztertzen duen pertzepzio hori edukitzea baina, horren ondoriozko erabakien aurrean, euskaldunok ezin ote dugu *Ameskoabarren* erabili euskaraz aritzean?

Zalantza hauek bizi-bizi aurkitzen ditugu gaur egun hizkuntzaren profesionalen praxian, erakundeen ekinbideetan, seinaleztapenetan, prentsan, argitalpenetan... baita, noski, erabiltzaile arrunten artean ere. Gainera, euskara erabiltzeko deliberoa hartzen duenak ere, ez du beti asmatzen. Maiz entzun dugu euskararen normalizazioa, orokorrean, mantso samar doan

kontua dela. Bada, haren barruan, euskal toponimiaren normalizazioa atzeratuena dagoen atala dela esan daiteke segurtasun osoz. Alfabetaturiko edozein euskaldunek dagoeneko badaki nola idatzi behar den, adibidez, “*edozein orrialdean aurki zeniezadake* adibide on bat” (deklinabide muga-gabea, aditz oina, adizki laguntzaile konplexua...). Euskal idazleek eta kazetariak, ordea, –eta hitzaren profesionalak ari naiz– ez dute oraindik ikasi nola deklinatu behar diren *Azpeitia*, *Asparrena* edo *Bizkaia*... Bistan da, euskaldun guztiok elebidunak garen aldetik, komunikazio arrunterako praktikoena gaztelaniara jotzea dela.

## EUSKALTZAINDIAREN PAPERA

Amaitzeko, toponimia ikerketetan Euskaltzaindiak zein paper betetzen duen eta bete behar lukeen apur bat zehazteko, iradokizun batzuk eman nahi genituzke.

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea ikertzaileen lanetatik eta ideien elkartrukatzetik elikatzen da batez ere eta, horregatik, lan horien jarraipena egitea eta ikertzaile horiekin iritziak trukatzeko jardutea interesatzen zaio bereziki. Ohikoan kontrakoa uste bada ere, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak ez ditu era honetako toponimia ikerketak *burutzen* eta, are gutxiago, era honetako argitalpenen monopolioa bilatzen. Hala ere, egiten diren ikerketa askoren berri izaten du eta funtzio bat edo beste betetzen du beraietan. Normalean, beka edo lehiaketaren deialdi agirian jada agertzen da zein izango den bere eginbeharra. Sarritan esleipen epaimahaiko nahiz jarraipen batzordeko kide pare bat jarri, zuzendaritza eskaini eta toponimo arautuen azken zerrendari oniritzia ematean datza bere eginkizuna.

Honez gainera, Euskaltzaindian burutzen hasi den *Euskal Corpus Onomastikoa* izeneko egitasmo eskergak (ECO), baliabide informatiko batzuen atonketa egokia ekarri du. Azken aldi honetan Euskaltzaindiaren partaide-tzaz egiten ari diren toponimia ikerketetan, ECO zerbitzuak eskuraturiko aplikazio informatikoak ari dira erabiltzen. Taula anitzeko datu base egituretan antolatutako (MS Access), ikerketa bakoitzeko interesen arabera moldatzen ere laguntzen dugu, betiere erakunde bultzatzaileek eta ikertzaileek lortu nahi duten produktua helburu izanik.

Ikerketaren amaiera aldean ikertzaileek eta zuzendariak ez dituzte beti gauza guztiak argi eta, gertatu ohi da, Onomastika batzordeak zuzenean leku izen zehatz batzuen arautzea eztabaidatu behar izatea. Hala egiten da eta eztabaida horien ondoren, lanari oniritzi orokorra ematen dio Euskaltzaindiak. Gorago esan bezala, lanaren amaierako fase honetan parte hartze anitzagoa ahalbidetzen duen metodologiaren erabilera hedatu behar dugu. Onartu behar da eragile anitzak dituzten honelako prozedurek lan handiagoa emango digutela, baina arautze fasea aberasgarriagoa izango da eta emaitzak kontsentsu handiagoa lortuko du. Finean, geure toponimia modu eraginkorragoan normalizatzen arituko gara.

## RESUMEN

El artículo pretende poner de manifiesto la necesidad que los actuales estudios de toponimia tienen de una revisión a fondo en cuanto a sus fines y métodos de trabajo. Para ello, se hace una breve presentación de este tipo de investigaciones con la expresa intención de mostrar su necesidad y utilidad en nuestro tiempo, muy especialmente en el País Vasco, donde la normalización de su lengua propia –y en algunos territorios cooficial– ha resultado ser un camino más largo y tortuoso de lo que cándidamente se esperaba no hace tanto tiempo. Tras realizar una somera descripción de las diversas fases o etapas de que tradicionalmente se hace constar a las investigaciones toponímicas, se aborda un pequeño comentario crítico de ciertas actitudes observadas desde el seguimiento de trabajos de esta índole en los agentes activos de las mismas, sean éstos los financiadores del estudio, los propios investigadores, los informantes, los usuarios o los gestores del producto final. Por último, se indica el papel que la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia puede tomar en esta tarea investigadora como entidad académica garante de la calidad del proceso y de sus resultados. El artículo no tiene en absoluto la intención de agotar la cuestión, sino simplemente de abrir un debate necesario pero permanentemente evitado por intereses y acomodos de muy diferentes naturalezas. Por esta razón, los aspectos criticados en el mismo tienen más carácter de ejemplo que de análisis exhaustivo, lo que no les resta valor como testimonio de las dinámicas que se despliegan, más o menos conscientemente, en el quehacer de los promotores, investigadores y usuarios de la investigación toponímica.

## LABURPENA

Artikuluak gaur eguneko toponimia ikerketek helburu zein lan metodologiei dagokienaz duten birbegiratze beharra jarri nahi du agerian. Horretarako, ikerketa hauen aurkezpen labur bat egiten du, gure garai honetan lan horien beharra eta duten erabilgarritasuna erakusteko helburu zehatzaz, oso bereziki Euskal Herrian, berezko hizkuntzaren normalizazioa –zenbait herrialdetan koofiziala dena–, duela ez horrenbeste inozoki espero zen baino bide luzeago eta korapilatsuago gertatzen ari baita. Toponimia ikerketek tradizionalki dituzten fase edo urratsen deskribapen xumea egin ondoren, era honetako lanen jarraipenean eragileen baitan ikusitako zenbait joeraren comentario kritiko txiki bana egiten da, eragile horiek ikerketaren sustatzaile ekonomikoak, ikertzaileak berak, informatzaileak, erabiltzaileak, nahiz azken ekoizpenaren kudeatzaileak izanik ere. Amaitzeko, ikerbidea zein haren emaitzaren kalitatearen bermatzaile den erakunde akademiko gisa, Euskaltzaindiak ikerketa jarduera honetan bete dezakeen papera aipatu nahi izan da. Artikuluak ez du gaia ahitzeko inolako asmorik. Aitzitik, izaera desberdineko interes eta erosokeriengatik etengabe saihesten den eztabaida beharrezko hori ireki nahi luke. Honegatik, bertan aipatzen diren aspektuak erabateko analisia baino gehiago, adibide izaerako ekarpenak dira. Horrek, ordea, ez dio ezer kentzen toponimia ikerketaren bultzatzaile, ikertzaile edo erabiltzaileen eginbeharrean, kontzientzia maila handiagoz zein txikiagoz, aktibatzen diren lekukotza bezala duten balioari.

## RÉSUMÉ

L'article insiste sur la nécessité de revoir les fins et les méthodes de travail des études actuelles de toponymie. Pour cela, on fait une brève présentation de ce genre de recherches dans le seul but de démontrer leur nécessité et utilité de nos jours, notamment dans le Pays-Basque, où la normalisation de sa langue propre –et dans certains territoires co-officielle– a été un chemin plus long et

tortueux que ce que l'on avait naïvement cru il n'y a pas si longtemps encore. Après avoir réalisé une sommaire description des différentes phases ou étapes qui sont habituellement reflétées dans les recherches toponymiques, on aborde un bref commentaire critique de certaines attitudes observées à partir du suivi de certains travaux de ce genre dans les agents actifs de celles-ci, soient les financiers de l'étude, les chercheurs eux-mêmes, les personnes qui fournissent l'information, les usagers ou les gestionnaires du produit final. En dernier lieu, on indique le rôle que la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia peut avoir dans cette tâche de recherche comme entité académique garante de la qualité du processus et de ses résultats. L'article ne cherche absolument pas à clore le débat, mais à l'ouvrir un débat nécessaire, tout en évitant les intérêts et arrangements de toute sorte. C'est pourquoi les aspects qui y sont critiqués sont plutôt pris comme exemples que comme analyses exhaustive, ce qui fait qu'ils n'ont pas une grande valeur comme témoignage des dynamiques abordées, de façon plus ou moins consciente, dans le travail des promoteurs, chercheurs et usagers de la recherche toponymique.

#### ABSTRACT

This article aims to highlight the need to thoroughly revise the current studies of toponymy in terms of the purposes pursued and working methods. To this end, there is a brief presentation which expressly intends to demonstrate the need for and usefulness of this type of research in the present day, particularly in the Basque country, where the normalisation of the indigenous language –and in some territories, co-official language– has proven to be a longer, harder path than one might naively have expected not so long ago. Following a brief description of the different phases or stages traditionally employed in toponymic research, there is a short critical commentary of certain attitudes, observed while studying work of this kind, harboured by the active agents of research, be they those funding the study, the researchers themselves, informants, users or managers of the end product. Finally, the role which The Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia can play in this research work as an academic body capable of guaranteeing the quality of the process and its results is indicated. By no means does the article intend to deal with the subject exhaustively; it simply hopes to open up a debate, both necessary and permanently avoided due to interests and conveniences of different kinds. For this reason, the aspects criticised in the article are presented more as examples than as part of an exhaustive analysis, which does not divest them of significance as testimony of the dynamics displayed, consciously or not, in the work of the promoters, researchers and users of toponymic research.